

Gure proiektua motorzaleentzako gailu bati buruzkoa da; gailu honek istripuen kasuan lagunduko du. Motorzaleak dira kasu hauetan gehien kaltetzen direnak, horregatik, asmakizun honek istripua berehala detektatzen lagunduko digu, eta horrela aktibatuko da, laguntza-abisuak eta istripuaren berri emanez.

Gure produktuak Interneteko sarbidea eta seinale pribatua izango ditu; hori oso erabilgarria izango da estaldurarik ez dagoen ibilbide batzuetan edo sare-arazoak dauden uneetan zirkulatzean.

Gure produktuak ez du irabazi ekonomiko handirik ekarriko; beharrezkotzat jotzen dugu bakarrik egiten diren ibilbideetan. Gure produktua bidaia luzeak egiten dituzten motorzaleen beharretara egokitzen da, eta edozein motatako motorretara doituko da, behar den erosotasuna eskainiz.

Produktua merkatura MOTO SAFE izenarekin aterako dugu. Hura sustatzeko inbertsioak egingo ditugu hainbat lasterketatan, eta birtualki babestuko dugu, sare sozialetan zein telebistan iragarritz.

Hasieran **60 eta 80 euro arteko prezioarekin** hasiko gara; horrek produktuaren gastuak eta babesaren zati bat estaliko ditu. Salmenten arabera, prezioa igo egingo da edo hasieran adostutako mailan mantenduko da.

MOTOR SAVE-ren produktua eskariaren gainetik ekoiztuko da; horrela, nahikoa izango da produktua eskatzen den edozein tokitan hornitzeko. Beste aldetik, mekanikarien tailerretan, dendetan eta mekanikako objektuen saltokietan eskuratu ahal izango da, eta modu digitalean ere gure produktua errazago saldu ahal izango da